

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK-BOMBEROS FORALES DE ALAVA

2026/269 Gerentziaren Ebazpena, 2026ko ekainaren 21ekoa, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoko suhiltzaileen kategorian deien poltsa eta prestakuntza-poltsa eratzeko prozedura onartzen duena

Erakunde Autonomoaren Administrazio Kontseiluaren 2026ko martxoaren 30eko erabaki baten bidez, erakundean aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko araua onetsi zen.

Arau horren lehenengo xedapen iragankorraren arabera, "Gerentziako zuzendaritzaren ebazpen bidez, deialdien poltsa eta prestakuntzako poltsa eratzea onartuko da, eta deialdiak deialdien poltsatik aurrera zein egunetatik aurrera egingo diren zehaztuko da. Ordura arte, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko Erabakiak ezarritako zerrenda-sistemari eutsiko zaio. Erabaki horren bidez, Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoaren (suhiltzaile-gidaria) aldi baterako kontratazio-zerrenda kudeatzeko erregelamendua onartu zen".

Deien eta prestakuntzaren lan poltsak eratzeak berekin dakar orain arte indarrean egon diren zerrendak osatzen dituzten pertsona guztiak lan poltsa horietan sartzea, onetsitako arauan ezarritako irizpideen arabera.

Horrek berekin dakar betekizunak egiaztatzeko eta merezimenduak baloratzeko prozesu bat. Horretarako, prozedura bat antolatu behar da, eta hori ebazpen honen bidez artikulatzen da.

Horregatik guztiagatik, nire eskumeneko ahalmenak baliatuz, bat etorritz Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoa eratzen duen ekainaren 13ko 8/2016 Foru Arauaren I. eranskinean jasotako estatutuen 20. artikuluan jasotakoarekin, eta Administrazio Kontseiluko lehendakariak apirilaren 2ko 27/2025 Ebazpenaren bidez eskuordetutako ahalmenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea erakunde autonomoko suhiltzaileen kategoriako deien poltsa eta prestakuntza poltsa eratzeko eta indarrean jartzeko prozedurari.

Bigarrena. Ebazpen hau www.suhiltzaileak.araba.eus web orrian argitaratzea.

Langraiz Oka, 2026ko ekainaren 21a

Zuzendari kudeatzailea

AITOR MIKEL URIARTE UNZALU

**ARABAKO FORU SUHILTZAILAK-BOMBEROS FORALES DE ALAVA
ERAKUNDE AUTONOMOKO SUHILTZAIEN KATEGORIARAKO DEIEN
POLTSA ETA PRESTAKUNTZA POLTSA ERATZEKO PROZEDURA**

Lehenengoa. Prozedura honetan erakunde autonomoaren kontratazio zerrenda osatzen duten pertsonak soilik parte hartu ahal izango dute. Era berean, "Gipuzkoa eta Arabako baterako lan eskaintza publikoa" deritzonaren kontratazio zerrendako pertsonak ere parte hartu ahal izango dute prozeduran.

Bigarrena. Prestakuntza poltsak eta deien poltsak eratze prozedurak hainbat fase ditu.

LEHENENGO FASEA

Ebazpen hau ALHAOn argitaratzearekin hasten da, eta, era berean, www.suhiltzaileak.araba.eus web orrian behin-behineko bi zerrenda argitaratuko direla iragartzen da.

Lehenengoan, prozeduran parte hartuko duten eta erakundean jasota dagoen euskararen ezagutzaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten pertsona guztiak sartzen dira.

Eta bigarrenean, berriz, prozeduran parte hartuko duten pertsonak sartzen dira, adierazita suhiltzaile edo dotazio buru gisa esperientzia profesionala dutela suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetan, organismo autonomoan, beste administrazio batzuetan edo sektore publikoan, karrerako funtzionario, bitarteko funtzionario edo lan kontratudun langile gisa, eta erakundean jasota daudela.

Behin-behineko zerrenda horiek ofizioz egiten dira, erakunde autonomoan dauden datuen arabera.

Zerrendak erakundearen webgunean argitaratu ondoren, prozesuan parte hartzen duten pertsonak hamar egun balioduneko epea izango dute, argitaratzen direnetik, behin-behineko zerrendetan argitaratutako datuei buruz egokituz jotzen dituzten erreklamazioak edo alegazioak aurkezteko.

Hizkuntza mailak kasuan kasuko ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatu beharko dira.

Era berean, lan esperientzia alegatzeko eta egiaztatze, Administrazio Publikoan aurretiazko zerbitzuak aitortzeari buruzko abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I. eranskinak aurkeztu beharko dira.

ARKAUTIKO PRESTAKUNTZA

Aipatutako hamar eguneko epe horretan bertan, zerrendan parte hartzen duten pertsonak ziurtagiria aurkeztu beharko dute, egiaztatze Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ziurtatzen edo homologatzen duen administrazio bereziko eskalari, iraungitze azpieskalari, atxikitako suhiltzaile kategoriari dagozkion eginkizunak betetzeko prestakuntza dutela, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzko azaroaren 23ko 12/2023 Legearen 8. artikuluko b) letraren arabera.

Interesdunek erakunde autonomoari zuzentzen dizkieten dokumentuak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako erregistroetan soilik aurkeztu beharko dira.

Beste edozein jakinarazpen mota (posta elektronikoa, etab.) ez da kontuan hartuko.

BIGARREN FASEA

Dokumentuak eta erreklamazioak, hala badagokio, aurkezteko epea igarotakoan, kudeatzailatzaren ebazpen baten bidez, deien poltsako eta prestakuntza poltsako kideen zerrenda argitaratuko da, erregelamenduan jasotako balorazio irizpideen arabera ordenatuta, eta, aldi berean, aurkeztutako dokumentazioari eta erreklamazioei erantzungo zaie.

Argitalpen horri dagozkion administrazio bideko errekursoak edo administrazioarekiko auzi errekursoak jarri ahal izango dira.

Argitalpen horren ondoren, berehala sartuko dira indarrean bai prestakuntza poltsa bai deien poltsa, aipatutako errekursoen ondorioz izan daitezkeen aldaketak gorabehera.